

Aberrazioa

MIKEL ARAMENDI



SASOI hartako Europa ekialdeko maparen gainean muga berriak eskuz marraztu eta alde banatara sinatuz itundu

zuten lur eta herrialdeen banakera 1939ko abuztuaren 23an Ribbentrop eta Molotovek, Alemaniaren esku geratuko zen kopia inoiz ez da aurkitu, ez da behintzat sekula argitara eman; sobietar artxibategiek ordea tentuz gorde dute bestea eta arestian Baltikoaldeko errepublikaren independentzia lejitimotzeko funtsezko dokumentua izan da.

Handik dozena erdi urte geroago, beste mapa baten gainean eskuizbribatuz zehaztu zuten —eta ia mende erdirako finkatu ere— berrero, Churchill eta Stalinek, Europa ekialde guzti horren etorkizun politikoa. Orainsu aldizkari batek dokumentua argitaratu duenean, leku askotako iritzi publikoa erresumindu egin da; historialariak ordea, tratua zehatz eta gordintasunak harritu ditu, ezerk harritzekotan.

Hurbiltasunaz gogoan ditudan kasu bi dira, soilik, baina gisa bereko paper itsusi asko dira historiaren hara-honakoak ulertzeko ezinbestekoak. Haien ezagutza zabaltzea on ezezik ezinbestekoa da, urrutitik bederen noziente/gozante izango garenez; tratugileak eta oinordekoak izan ohi dira halakoak isilpean gordetzen interesdunenak. Baina horrelako tratuen bat *ospa* dadin nonbait, norbaitek —edo gizatalde oso batek— adimen-aberria larria behar du izan. Zuzenbidearen kontrako aberrazioa litzatekeelako.

Gaztelako Isabel erregina eta Columben artean 1492ko apirilaren 17an sinaturiko «Capitulaciones de Santa Fe» deituak ohoretzat ospatzea, egin den legez, aberrazioa hutsa da. Juridikoki, politikoki, moralki.

!!!!!!

ELIXABETE GARMENDIA



EZ, ez da makinistaren errua, nahita jarri ditut zeinu horiek hasieran, eta agian hobe nuke zutabe osoa zeinu berberaz


beteko banu, halakoa bait da *aferra*, sustoz susto, progresio geometrikoan sortzen joan zaidan harridura.

Hemen 'Kaixo!'-rik bagenu portada harapatuko zukeen aferak, eta barruko orrialdeetan koloretako argazkiz betetako erreportaia, amaiera emazteak senarrari Entzutegiko pasiloetan barna emandako musu horietako batez horniturik. Protagonista biek eskeinitako espektakuloak ondo merezia zeukan erreportai hori.

Aurrekoa esan eta gero damu naiz nere friboldadeaz. Izan ere, bularraldean ziztada eta kopetatik behera izerdi hotza eragiten duen horietakoa bait da aferaren oinarrian dagoen istorioa. Ezin dut imajinatu bikote baten arteko konponezina tristura sakona sentitu gabe. Konponezina burruka eta kolpe bilakatzen bada, muga guztiak hautsi ditu.

Trapu zikinak etxe barruan astintzea hobe dela uste duen horietakoa naiz. Eta alde berean etxe barruko eta etxez kanpoko bizitzaren artean eten ezinezko lokarria dagoela sinisten dut bene-benetan. Norberaren bizitza eta jokabidea bat eta bakarra dela alegia esfera pribatuan eta publikoan. Kontrakoa defenditzea eskizofrenia litzateke. Horregatik, gauzak iritsi diren tokira iritsita, epaiketa bat tarteko, gaur da eguna harridura lotsa eta amorrazio bihurtu zaidana. Besteak beste, Legebiltzarreko giza-eskubideen batzordea, emazteari tratatu txarrak emateagatik zigortu duten gizon baten eskuetan dauka-gulako.

HEMEROTEKA



GALLEGO & REY / DIARIO 16

● EL MUNDO

Erakusketa unibertsalaren aurrekaldea eta atzekaldea

Errentagarritasun politikoa lortzeko ahaleginetan ari

dena Gobernu sozialista beradela dirudi. Gonzalezen hitzen ñabardurak ez du lortu Expo kapitalizatzeko nahia disimulatzerik, soilik PSOE-ren lormena izango balitz bezala aurkeztuta. Sevillako ospakizuna 'geure garapen ekonomikoaren, Espainiaren modernotasunaren, gu Europako Komunitatean sartzeko

prozesuaren eta guk nazioarteko erakunde eta foro guztietan parte hartzearen' lekukotzat hartzen duena (gauza bat eta bestea 83ko hasieran hasi zirela azpimarratzen guztiz ahaleginduta) argi dago ikusmena hauteskude horizonte aski jakinean jarrita duela.

EDITORIALA

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Irudimen apur bat, mesedez

EGUNKARIA 15 hilabetetan euskaldunon eguneroko ogi izan dadin lortu dutenak zoriondu nahi nituzke lerro hauen bidez. Ostikadak eta irainak hartzen ohituta zaudeteno (horretara inor inoiz ohitu daitekeenik uste ez badut ere) ondo etorriko zaizue, eta asmo horrekintxe jarri naiz, besterik gabe, idazmakinarean aurrean, zuen irakurle xume honen eskerron eta zorionak jasotzea. Ezti pixka bat, hainbeste ozpinen mingotsa gozatzeko ere.

Goizero egunkari saltzailearen postuan euskaldun izatearen duintasuna senti erazten didan EGUNKARIA hartzen dut eta harro asko joaten naiz kalearen erdi-erditik, orriak zabal-zabal eginda. Ez naiz, oraindik, egunkari honen kalitateaz ari (derradan bidenabar, beste askoren maila inguruan badabilela, behintzat) euskarazko egunkari bat izateak duen ikur edo sinbolo balioaz baizik.

Izan ere, zein murrizta den oraindik gure hizkuntzak euskal gizartearen duen maila! Nola euskaltzaletu gure ikasleak, begi aurrean dituzten eredurik gehienak euskara kaxkarraren eta gaztelera landuan dihardutenean? Komunikabideetan ez ditugu inoiz behar adina goratuko euskal irratiek

eta, kasu askotan, telebistak berak ere egiten duen lan ederra.

Egunkariaren munduan ari garelarik, ordea, ezin ditugu susmo eta mamuak baztertu. Susmoak eurak direla mamu iruditzen zait, gainera. Beltza da, gero, beti euskararen alorra mamuz beterik egotea! Zergatik ote da?

Politika artea dela irakurri eta entzun izan dut beti eta artea den aldetik, arrazoi prosaikoak alde batera utzi behar litzuzke. Bidea ibiliz egiten da eta lagun diezaiogun EGUNKARIARI ere bere bidea egiten. Agintariak herritarren ekimena onartzeko adinako zabaltasuna eta ziurtasuna behar litzuzke. Euskarak eta Euskal Herriak eskertuko lukete irudimen pitin bat.

ANJEL UGARTEBURU

Elgoibar (Gipuzkoa)

Intsumisioaren aintzindari baten gainean

Bazen Cervantes lagun bat asko berotu zena militar gauzekin, noraino ezen Espainiako inperioko armadan ere alistatu bait zen, Lepantoko bataila aipatuan parte hartu zuen, preso egon zen Aljerian ez dakit zen-

bat urtez, eta azkenean askatu zutenean itzuli zen Espainiara. Iritsi ahala gartzelan sartu zuten, eta gorriak ezagutu zituen.

Uste dut gartzelan egon zenekoa dela bere Quijote liburua. Han bere eskarmentuaz parte ematen dio munduari. Homero, Julio Cesar, Virjilio, Plutariko eta zaldunen historia eta eleberrri mordoak irakurri ostein, irudimena berotuta sikatu egin zitzaion garuna, judizioa bueltatu eta begirakunea desegokitu, halaxe hartu zuen erabakia, eta gau batez osteko leiho batetik alde egin zuen bere etxe eta bizimodu baketsutik, menturen bila mundu zabalera...

Zenbat hobe han bertan geratu bazen!, holako esakune mordo bat botatzen ditu autoreak liburuan zehar, urten izan ez balu...

Eta Cervantesen gogoeta ez da hortxe geratzen, badu esaten ere askoz hobe izango litzatekeela bakoitzak (katalanak, bizkaitarrak, gailegoak, edozeinek) bere herriko hizkuntzaz egingo balu...

Beraz, ez da makala idazle poeta honek inperiozko gauzei, kulturari, egiten dion kritika. Eta ez dut uste aurrerapenen aurka zegoelako, gauzak eta bizimoduak okertu egin zitzaizkiolako baino.

R.G.

Soraluze (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Maurizio Elizalde

Musika eta kultur arloan zure jakintza zorrotza ez zegoen kantu edo dantzari zuretzat zenik arrotza nahiz eta lehengo larunbatean izan zure heriotza oraindik ere entzuten dugu zure txistuaren hotsa.

ESTITXU AROZENA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 7.2564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
LUZIENTXEHARRETA, IÑAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxe: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxe: 45 59 57
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxe: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxe: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11